

10 BIZKAIA

Agüera ibaia, Pando herrian



Ingurumen-garrantzia

Agüerako arroa Bizkaian ongien kontserbatutakoena da. Ibilbidean zehar, ibai tarteak kontserbazio egoera ona du, batez ere, uraren eta ibar-basoaren kalitatea, azken honetan haltzak nabarmenduz (*Alnus glutinosa*), eta ahaztu gabe lizarrak (*Fraxinus excelsior*), sahasak (*Salix sp.*) e hurritzak (*Corylus avellana*). Baldintza

horiek fauna ugaria bizi den ibar-korridore bat sortzea ahalbidetzen dute. Arrainetan amuarraina (*Salmo trutta*) nabarmentzen da ibai tarte honetan dagoen Turtziozko arrantza-esparruan. Hura da espezierik aipagarriena, beste batzuk ahaztu gabe, hala nola loina

(*Parachondrostoma miegii*) eta aingira (*Anguilla anguilla*). Hegazti ugari ere baditugu, urte osokoak eta sasoikoak, negu partea eta pasan. Horien artean tarinak (*Spinus spinus*) nabarmenduko ditugu, haltzetan lo egiten dutenak. migrazio-garaian: urri bukaeratik hasita negu osoan haltzetan lo egiten dutenak.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 2,5 km



45 min



Udalerria:
Trucios-Turtzioz
Hurbileko herria:
Pando



Ibaia:
Agüera



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo



151 m



73 m



125 m



86 m



AGÜERA IBAIA,
PANDO HERRIÁN

Agüera ibaia, Pando herrian



Non dagoen eta nola heldu

Agüera ibaia Bizkaiko Lurralde Historikoaren ipar-mendebaldeko mutur-muturrean dago, Enkarterri eskualdean, Turtzioz udalerriko, Pando herriko lurretan.

Ibilbideari, BI-636 errepidetik ekingo diogu Alonsotegi, Sodupe eta Zalla pasata; ondoren, BI-630a hartuko dugu Artzentalet eta Valle de Villaverdera (Uribarri Turtzioz). Bertatik, BI-2617 a hartuko dugu Pando auzoraino.

Ibilbidea Pando auzunetik hasiko dugu (Turtzioz), Pandoko zubian, izen bereko etxearen ondoan. Zubitik bertatik hasten den bideari ekin behar diogu ibaiaren eskuin aldetik, eta errepidean aurrera egingo dugu "El Gorito" iturriraino. Hantxe, GR-123a hartuko dugu, eta eskuin ibarretik bat koma bat kilometro eginda, hamabost bat minutuan helduko gara Basinagre auzunera, non GR-123a eta PR-BI-120a elkartzen diren. Basinagren XVI mendeko burdinola bat aurkituko dugu, eta bertan, ur-presa, erretena eta tunel hidraulikoaren arkuak. Lehentxeago, ibaia zeharkatu behar dugu zubitik, Basinagre dorretxea ezker aldean utzita. Antzinako errege bidetik jarraiki, ibaiaren ezker aldetik, Agüerara helduko gara.

Bat koma hiru kilometroko ibilbideak hogeita minutu hartuko digu. Ibaialdean zehar pasiera gozoa da. Kontserbazio egoera onean dagoenez, haltzadi trinkoa gozatzeko aukera izango dugu.

Agüeran atsedean eremu bat aurkituko dugu, eta bertatik egin dezakegu itzuliko bidea.

Edozein urtarotan egin daiteke bisitaldia.

Deskargatu
ibilbidea:



KML




GPX



Wikiloc

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Agüera ibaia, Pando herrian



Agüera ibaia, Pando herrian

